

Ene Olentzero maitea:

Beti mantendu izan duzu epeltasuna ene bihotzean. Irribarrez, ilusioz, ametsez eta desiraz bete duzu etengabeko ameslari itxaropentsua naizen honen pauso oro. Primeran oroitzen dut zure berri izan nuen lehengo aldia. Aititeren magalean eserita zegoen lau urteko neskatoaren begien dirdira gau beltzak bere baitan marrazten dituen izarren antzera datorkit burura, ni nintzen neskato hura, aititeren esku zimurtu eta higartuak maite zituen neskatoa, haren ile zurixkan Gabonik ederrenen irudia imajina zezakeen ameslari txikia. Berak esan zidan zure txondorren berotasunak bihotzik hotzena ere epel zezakeela, zu gogoan izanez gero ez nintzela sekula bakarrik egongo.

Bizipozez betetako zuhaitz mardul nekaezina da aitite, haren begi beltzetan aurkitu izan dut momentu oro behar nuen indarra, haren bihotzaren ispilu den irribarre nekatu eta arrakalatua izan da beti nire zerua argiz bete duen ilargi erraldoia. Baina, aititeren irribarrea lanbrotzen ari da, galtzen ari da, bere begiradak dirdira magiko hura ia guztiz galdu du eta nik ezin dut haren bihotza besarkatu. Dena ahazten ari da eta nik ez dut bera ahaztu nahi.

Badira hilabete batzuk galdera lazgarri hark nire bihotza mila zati nimiño konponezinetan apurtu zuenetik: nor zara zu? Begietara begiratu nuen aitite, haren bihotzak ni ahantzi ninduen, haren irribarra beltzez margotutako gau ilun hotzak estali zuen guztiz eta malkoak begietan nituela, itsasoko olatuen antzera nire masailen aurka talka egiteko zorian, nire izena esan nion. Gaur, hitzok idazten ari naiz aitite aurrean dudala, begirada hor nonbaiten galduta duelarik, hantxe egon nahiko nuke nik, bere begirada galduta dagoen tokian.

Saiatu naiz, Olentzero, gogoz saiatu naiz, eta aurten ere, zu zara nire ametsen kriseiluaren argi xumea piztuta mantentzen duen sugarra. Jakin badakit ezinezkoa dela ahantzurari aurre egitea baina, orain, aitite duela 15 urte haren magalean eserita zuen haur

txikiaren parekoa da. Haren esku higartuenganako bidea egingo dut berriro, gogor cutsiko ditut eta hark behin kontatu zidan istorioa kontatuko diot: ene Olentzero maitcaren istorioa, bihotzik hotzena epeltzeko gai den magiaren sortzailearen kontakizuna.

Badago aititeren etxean argazki eder bat, bera ageri da bertan, poz-pezik dagoela dirudi, urte hartan panazko galtza berriak oparitu omen zenizkion, huraxe da haren argazkirik maitatuena, eta horiexek dira haren prakarik gogokoenak. Edozer emango nuke haren irribarra bertan bezain handia bihur zedin. Aititeren bihotza dagoen tokian dagoela badakit hor nonbait zure txondorraren keak bilduko duela, badakit bere oroitzapenik izkutu eta barrenekoetan badakiela hantxe zaudela.

Beraz, ene Olentzero maitea, noizbait harekin hitz egitea lortzen baduzu esaiozu nire partez maitasuna ez dela oroitzapenen antzera, maitasuna izarren antzekoa dela, berdin dio gaua iluna den, zerutik hurbil edo urrun gauden, izarrek han dihardute, irmo, lanbroaren atzean, hodei grisen artean, ezkutuan egonda ere, ez dira itzaltzen. Gabon hauetan Olentzero panazko praka pareta eskatu nahiko nizuke, aititeren bihotza berotuko duen praka pareta, aititeren begi galduetan ilusioz betetako dirdira agerraraziko duen maitasun epelez betetako praka pareta, haren irribarre nekatua berriro ametsez beteko duen praka pareta.

Bihotz-bihotzez,

Beti gogoan izango zaituen
etengabeko ameslari itxaropentsua.